

## 38 - SAN JOSEPE HARROBIA

### 1. HELBURUAK:

- 1 San Josepe harrobia jarduera bezala bertan behera utzi ondoren, tokia berreskuratu eta bertan eraiki ahal izateko aukera ematea.
- 2 Jarduera ekonomikoetarako balizko lurzoru beharrari aurre egingo dion esparrua sortzea.
- 3 "Ekobarrutia"-ren aukera guztiz ez baztertzea.

### 2. EGITURAZKO ANTOLAMENDUA:

|                               |  |
|-------------------------------|--|
| LURZORUAREN SAILKAPENA:       | Lurzoru hiritargaria   |
| ESPARRUAREN AZALERA:          | 92.116 m <sup>2</sup>  |
| ERABILERA OROKORRA:           | Jarduera ekonomikoa  |
| SISTEMA OROKOR PUBLIKOAK:     | Esparruaren barruan gelditzen den:<br>- AP-1 autobidearen zatia                          |
| ERAIKIGARRITASUN FISIKOA:     | 20.689 m <sup>2</sup> (a)  |
| HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA: | 19.116 m <sup>2</sup> (a)  |
| ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA:    | 15.614 m <sup>2</sup> (h) (36 artikulua)   |
| BABESTU BEHARREKO ONDAREA:    | Berez ez dago. Baina plan partzialak San Josepe ermitaren aztarnak zaintzea eskatzen du. |
| EGITARAUA:                    | 2. laurtekoa   |

### 3. BEREGANATUTAKO ANTOLAMENDUA:

San Josepe S-19 Sektoroko plan partziala, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2003ko maiatzaren 13an zenbait baldintzakin behin betikoz onartutakoa, bereganatzen du HAPO honek.

### 4. ANTOLAMENDU XEHATUA:

|  |                           |
|--|---------------------------|
| ANTOLAMENDU ARAUBIDEA:                                   | Bereganatua (A4)          |
| JARDUKETAREN EREMUA:                                     | Esparrua bera             |
| JARDUKETA ERA:   | Hitzarmen-sistema (K4)    |
| ZUZKIDURAK (TOKIKO SISTEMAK ETA URBANIZAZIO IRIZPIDEAK): |                           |
| - Hornikuntza .....                                      | 1.573 m <sup>2</sup> (e)  |
| - Eremu zabal eta berdeguneak .....                      | 27.181 m <sup>2</sup> (l) |
| - Aparkalekuak .....                                     | 257                       |
| - GI-3554 errepedearekin lotura egokitu beharko da       |                           |

#### ERABILERA ARAUBIDEA:

- E. ohikoena: Industria arrunt jarduera (86 artikulua)
- Gainontzean, onartutako plan partzialaren arabera

ERAIKIGARRITASUN XEHATUA: Onartutako plan partzialak zehaztu du

ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA: Onartutako plan partzialaren arabera

ESKUHARTZE GUNEA: BAI

#### BESTE BATZUK:

1. Gaur egungo eraikinak antolamenduarekin bat datozen ala ez bereganatutako planak zehaztu du.
2. San Josepe ermita inguruan egon daitezkeen arkeologia aztarnen azterketa egingo da.
3. Eraikigarritasun haztatua kalkulatzeko 36 artikuluan jasotako laukia loteslea da.

### 5. KONTUAN HARTZEKOAK:

- 1 San Josepe basiliza, Solozar I haizuloa, Solozar II haizuloa eta Solozar III haizuloa, bakoitza bere inguru hurbila barne, balizko arkeologia gune bezala izendatuta daude.
- 2 AP-1 autobidea egiteko beharrezkoa zen lurzoruaren lagapenak eginda daude jadanik. Lagapen horiek zuzeneko okupazio bidez egin ziren, 2011ko apirilaren 8an sinatutako akten arabera. Hortaz, jabeek, lagatako lursaili zegokien hirigintza-eraikigarritasuna mantentzen dute oraindik.
- 3 Aurrekoaren harira, Arrasateko Udalak eta Canteras San Josepe, SA-k 1993ko martxoaren 5ean sinatutako hitzarmenaren ondorioz, bigarrenak Kutzarekin permutaturiko lurzatiari dagokionean (7.740 m<sup>2</sup>koa) hirigintza eskubideen herena bakarrik egingo du bere. Osterantzeko bi herenak Arrasateko Udalarai dagozkio.